

Aztekak

Istoria ta Leienda

Aita ONAINDIA

Hernan Cortes Mexiko'ra eldu ondorengo lurraldeak bereganatu zirenean, kultura ta erri-
gintza indartsu ta zabal batez
egokitu zan bertan. Aztekak ziran
guztiak, eragile aundi trebeak;
erakuntza itzalekoak, euren
ekonomi ta gainherako guztiakaz.
Guztiak ziran arein uriburua, Te-
nochtitlan eritxona, oi ez lako
herakoa, espainiar bidalariak
guztiak ta arriturik itxiaz.

Aztekak, Mexiko Ipar aldetik
"Atlan" lurraldeetatik ibillal-
di oso luzea egin ondoren, Tezko-
cancan ingira ertzetara eldu ziranean,
sapalda jori ta itzal baten
aurkitu ziran; sapalda edo
zabal au, bata, Popocate-
petlek, 5.452 metro ta besteak,
Iztaccihualt-ek 5.285 metro euke-
n sumendi eskerga biren orpoan
egoan.

Aoz-aozko ipuiñak edo edestiak
ezinez, aztekak ezin eikeen
guztiak eurentzat egotezko bizileku
guztiak euren jainkoak agindutako
guztiak erakutsi arte, "...arra-
gintza bat sugea irunsten, kaktus ba-

ten gainean jarrita...", eta urmael
edo zingiratik jagiten ziran arkaitz
baten gainean ikusi eben gertakari
ori.

Olan ba arat-onat ebillen leiñu,
giza-talde au, "ezaugarria" begiz
joaz bat, ugarte areitariko baten
egokitu zan, aztekar aginterria de-
ritxon uriburua, Tenochtitlan
(euren Apaiz Nagusiaren izenez
ugutzia), Kristoren osteko 1325
urterantz, jasorik.

Aztekarren jainkoak

Aztekarren jainkoetatik aundie-
netariko bat Huitzilopochtli izan
zan dudarik bage; askotariko
doaez jantzi zan berau, gudu,
eiza ta eguzkiaren jainko batez be
izanik. Tlalok zan euriaren jain-
kotasuna, eta aztekak oni eskiñi oi
eutsoezan batez be aur-opariak.
Ahuitzolt'en agintaritzan 20.000
pertsonek zintzur egiñak izan ziran;
aren ondorengo Moctezuma II'ga-
rrenak oster a bardin egin eban
beste 12.000 eskiñirik. Orretarako
errazoi nagusia au izan zan: Eguz-
kiak, itzali ez eiten, etenbako opa-

...orrek bear ebazan, uste zanez.
 Quetzalcoatl zan beste jainkotas-
 un garrantzizko bat, aize ta egu-
 sarena, "...suge lumatua..." lez
 agutua.

Aztekak, Tenochtitlan'en ego-
 ziarri ziran ezkerro, urak eta zin-
 dora lekuak bide, surgu, erreten,
 eta zubi-sare biurtzen alegindu
 ziran. Kaltzada bik alkartzen zi-
 naren ugarteak lur tinkoaz, toki sa-
 ratu edo Zokalo eritxonean gu-
 tuzaturik.

Aztekar poema batek onela
 besten ditu bere edertasun bere-
 rik...

...urria da edatzen
 ezko oboetan,
 izpiak jarioz
 zial luma antzetan.
 bide zear ontziak
 dera fiñak daroetz,
 ño loratua dabela
 euren buru-gaiñez".

Aginterria goraka

1325 eta 1529 bitartean azteka
 aginterriak gorakada izugarria
 eban; alkar-arteko erakunde
 atondutako bat bide zala,
 laterri eredu bikaiña dagie azte-
 kar, errege-politika atxiki irau-
 n eta jerarki-tankerako laterri
 guruz, gauzak aurrera eroanez.
 Era berean, solo ta baratz-lanetik
 aiaz batez be, Mexiko'k gaur
 dukan lurralderik geienaren muga
 uruan bizi ziran.

DETAILLA-AGORRA 1986

XV'garren gizaldiaren leen-
 -inguruan Tenochtitlan aginte-
 rriak kemenez jazten da bire bizi-
 birea ta giroa indar-azo nairik, be-
 re ekonomi ta politikazko adorea
 bereziki bere auzoko uri Tezcoco
 ta Tlacopan'en aurrea atan be, en-
 parauen artean. Baiña, errialde
 onei euken diru ta kulturazko in-
 darra gitxi-azo bearrean, menpe-
 kotasun politiku bakar baten izae-
 ta jarri eutsen, urteeroko zergak,
 kaisarri zor jakozan auzo-lanak,
 Tenochtitlan ari ordaindu bear
 eutsen salerosketako eskubideak
 aitzu barik.

Orrela aztekarren aginterria
 laterri-uri alkartuz eraturik egoan,
 iskillu-indarrez aztekar uriburuari
 men egiñik; era berean 20 kalpuli-
 tan banatua egoan, kalpuli bako-
 txak lur-zati bat eukala, batzarle-
 kua ta eleizea, sendikoak, senar-
 -emazteak edo-ta emakumeak eta
 beronen ondorengoak, osoturik.

Sumendi biren edestia

Sort-egorantz, mendi garai biak
 daukazuz, Popocatepelt, au da,
 "kea darion mendia", eta Iztacci-
 hualt, au da, "emakume
 lokartua", emakumea baten soin-
 -itxura daukalako.

Espainarrak ara orduko leienda
 batek diño Iztaccihualt'ek eguzki-
 pean lo datzan emazteki baten iru-
 dia taiutzen dauala, eta Popocate-
 pelt'ek ostera sua dariola mendez

mende ikustari izugarri bat bai litzan; eta sumendi aundi biok maitasunezko istoria daukie...

“Iztaccihualt, millaka urteak dirala, lora baten antz-antzeko printzesa izan zan eta onekin maite-mindu zan jauntxo zaarren leiñuan bertako kapitainik lerdin kementsuena. Neskatzaren aitak, bere ezpan gurenak edegi ta kapitain maitemindu lilluratzailleari esan eutson egun batean biurtzen bazan kazike etsaiaren burua bere lantzan esegita ebala, gertu idoroko ebazala batera, bere garaitzaren oturuntza ta bere maitasunaren oia”.

“Eta Popocatepelt, gerrara joan zan itxaropen au biotz-barne ebalarik; ezi zituan oian biurri-

-naasien matxiñoak, arkaitzen iraultza bere igaro-bidean zear, beti garaille; eta eundaka ta eundaka gudarien aurka, urtez urte, burrukatu eban”.

“Azkenez itzuli zan bere jendartera, eta kazike etsaiaren burua lantzan egoan dingilizka, odolatan. Bere garaitzaren jan-edana prest aurkitu eban, baiña ez orrela bere maitasunaren oia; oiaren ordez, zer aurkitu eben? Bere emaztegaia, Eguzkipean loak artuazain egoan bizitzan iñoiz mosutu ez eban aoaren azken ikutua”.

“Eta Popocatepelt'ek apurtu eban bere belaunetan gezi-txorta, eta, abots sorgorrez, bere arbasoen itzalak biraokatu zituen bere jainko pairu-eziñaren ankerkeria-



Teotihuacan, Ameriketako piramiderik aundiena.

ñate luzea emon oi dautse, Kristoren aurreko 150 urtetik asi ta gure mendeko 750'raiño datorrena, ain zuzen be.

Aztekarrak, emen orduko jauretxe bat idoro bait eben, "jainkoen lekua" deitu eutsoen; euren ustez, bada, olako argintza ta etxekuntzak jainkoak egiñak ziran bakar-bakarrik, euren eritxiz.

Ibilbide luze bat dago bertan Iparretik Egoaldera, ezker-eskuma jauretzez eta piramidez bete; aztekak oni "Illen Kaltzada" deitu eutsoen, eta bertako arriak olako gudu, opari ta ipuin zarrezko erromantizismuz zamatuak dagoz.

"Illen Kaltzadea" zugatz-arte nagusia dozu, iru kilometro luze dana. Ego-aldetik Quetzalcoatl'eko Gaztelupe ta Jauretxean astenda, ots, "suge lumatuan" noski; onek erakutsi bai eutxen "egutegia" erabilten, baiña bere arerioen zirikaldi ta txarto esanai oben emonik, bere aginterria itxiaz, Sarkalderuntz begira, itxasoaren zabaldi neurri bakoan.

Gazteluaren alderdi biak lau piramidez koroiturik dagoz, garrantzi gitxiagoko jainkoai sagaratuak, arean.

Kaltzadearen ipar-aldeko puntan dago zutik Illargiaren Piramide deritxona; bost erxegain, egutera edo begira-toki zabal daukaz, pizkat makurtuak, eta mailladi

Berea zan bizia, bere-berea, berak eriotzearen aurka irabazia berako; garaitza eukan, ondasuak eukazan, al-izatea; baiña mailladi ez eukan..."

"Orduan, bere aginduz ogei mimenpekok il-kutxa ikaragarria jaso eben Eguzkiaren aurrean; mailladi ebazan amar mendi-tono, bere besoetan artu eban emante maitatua, eta ber-berak ilkutxa gainean ipiñi eban; gero, mailladi bat eskuan artu ta zutik ondoan geratu zan betiko bermaigabearen illobiari argi egi-

"Iztaccihualt'ek bakean lo daldiak ez dabe egundo aren berazpen garbiaren ertz bitxirik bereztuko. Atsedean bakean, Poxtatepelt; ekaitzak ez dabe iñoiz, maillasuna, zure zuzia itzaliko..."

Aspaldi bateko kulturak

Tenochtitlan uriaren sort-iparantz, aztekarrak, Teotihuacan uraneko uriaren kultura jagi ta ondarte aurreratutako arkitektura ondar arrigarriakaz aurkitu zituzten; onek ziurrik asko 100.000 pertsona iritxi zituan bere "aromatikan" eregia izanik.

Egindako atxurketa eta aurkitutako azur eta beste ondarren azterketan oiñarritutako estudioak erabiltzeko, arkeologuak antxi-



Xochiquetzal, Tlalco jainkoaren emaztea.

bat erdian; beronen aurrez-aurre kokatzen da Illagiaren Zeia, eta sarkalderantz daukazuz Jaguar eta Mitxeleten Jauretxeak.

Illeen Kaltzada erdian eta beronen sorkalderantz, Eguzkiaren Piramidea jalgitzen da, Mexiko'ko piramideetan bigarrena, Cholula'ri jarraika. Onela eregita dago, eguzkia udako mugan, egun-egunean ain zuzen, beronen alderdi nagusian doi-doi sartzen dalarik. Piramideren aurreko plazan aurkitzen dira erdi-atxurtuta gela batzuk, alkarren artean zer-ikusia dabenak, eta ziur asko apaizen bizilekuak diranak.

1974'an, Eguzkiaren Piramidearen erdi-erdiaren azpian ain zuzen, leza bat aurkitu zan, lurpean iru metrora, ormak gisu edo estukuz beteak, irusta edo sekula bedar itxurako, gizonaren eskuz egiña.


Teotihuacan zibilizaziño aundi ostean, Tolteca'rena etorri zan. Kristoren ondoko 856'garren urtean, Tula uria eraiki eban eta Teotihuacan'akoak onegaz alkar-tu ziran, eta Txitximekoak suntsitu eben azkenez Tula.

Aztekarren azkena

Hernan Cortés, 1519'ko epaillaren 12'an, mexikar lurretara elduta Tabasco'n oiñak jarri ebazanean, Tenochtitlan'era bertatik zuzendurik, Moctezuma II (1503-1520) zan orduan uriko nagusi, eta espainarrak 1519'ko azaroaren 8'an sartu ziran berton. Aztekar uribururako ibillaldian Pelagallinas edo Kortes'en Igarobidea zearkatu eben Kortes'en guda-mutillak, Iztaccihualt'ik Popocateptl berezitzen dauan mendi-bizkarretik ain zuzen. Hernan Cortes'ek an bere kapitain Diego Ordaz'i agindu eutson igon zedilla Popocateptl gaiñera. Eta Antonio Solis'ek idazten dau Diego Ordaz igon zala, gudari bigaz eta bertako "tlaxkalketa" jaun batzuk, euren jainko-izenen jauretxeak eukezan ermitetaraiño beragaz joango ziralala itz-emon eutsoenak lagunduta. Andik gora igon ziren iru espainarrak sumendiaren aora eldute arte, onen barruan ikusiaz sua ke artean eta autsa ugari. Goiko erpiñetik azufrea ekarri eben ziur asko, kaiñoentzako naitanaiezko gaia. Urteak geroago, Karlos V

Joana oraiñean

Gaur, Mexiko uri aundi bikaiñean, igarotako gauza askok dakarskuz gogora gomutaki joanak, azteka erriaren kultura ta kondaira; gomutaki onein artean Parkeko Zumardia, espainarrak 1529'an antolatua, gaurko etxe garai ta ederren batzuen ondoan nunbait, ots, Torre Amerika Latina, 43 pisokoaren ondoan. Cuauhtemoc'i jasotako Oroigallua, Laterri Jauregia, Moctezuma'ren Jauregi Barriaren ormazarren gaiñean Cortes'ek 1529'an jasotakoa... eta jakingarria nunbait, Antropologi Museua, Chapultepec Parke ondoan kokatua. Onen sarrera Tlollolc, euriaren jainkotasunaren 7 metro goi ta 167 tonelada pisu daukazan irudi ikaragarri batek zainduta dago. Antropologizko Laterri Museuak 45.000 m.2'ko zabala artzen dau.



Mictlantecuhtli, inpernu eta illen erreinuko nagusia.

zibilizazio...
'rena etorri...
ko 856' garra...
craiki eban...
ak onegaz...
ximekoak...
Tula.

azkena
519'ko epa...
lurretara...
k jarr...
'era ber...
ama II'...
iriko ma...
ko azar...
on. An...
an Pel...
Igar...
en guda...
popo...
li-biz...
Cort...
o O...
illa P...
toni...
o O...
a ber...
k, ca...
euk...
ang...
agu...
m...
ca...
o...
o...
o...

Ordaz'en armarrak, kaiserrak, zandu eban iskillutzat emonaz zizkitezko mendi bat sua erioen garrakin.

Espainarrak Tenochtitlan azpi-
nau ebenean, lazgorri ta izuak jo-
n geratu ziran; torre garaiak ikus-
n ebezan nainun, jauretxeak, pi-
ramide txuntxurrak, ubideak, zu-
bakiak... Moctezuma II'garren jau-
regiak berak miretsirik itxi zituan
espainarrak. Aren uri ta etxeak,
eskolak, iturriak, mintegiak, arri-
anduz apaindutako bideak, erria-
mentzako irolak... dana zan aundi
edler.

ingles zarkin-zale ta arkeologu
C. Vaillant'ek uste eban,
100.000 pertsona bizi izango zirala
Bear bada geiegi dira, bear ba-
ez. Dana dala, ekar daigun go-
gora Londres'ek garai aretan
10.000 inguru biztanle eukazala.

Tenochtitlan'go merkatuaren
garitasuna ta aberastasuna ondo
argi ta nabari izten dauz gudari
alde orretan joan zan Bernal Diaz
korigilleak, onek ba, 1520'an,
beste gauza askoren artean aita-
zen ditu: urre, zidar, bitxiak, jan-
tziak, lumak, tabako, oiñetakoak,
zina, ontzigintza... ontzigintza ta
keramika batez be, Mexiko ba lur-
ontzigintzan ospe aundiko lurral-
lea dogu.

Eric Martinez Gabaldo'k, "Historia y Vida" aldizkariaren 188 zenba-
tarian, argitaratu dauenetik artu eta eratua.

AGORRA 1986